

XIMINOA

Errepika:

Ximino bat bere lagunekin dantzan,
jostatu nahi du ; begira* zazu :

Itzul.

Errepika.

Jarri.

Errepika.

Etzan.

* begira : begista, so egin



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Ibiliz, kantuaren taupadak senditu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez. ◆ Soinuen munduari adi izan ; soinu zenbaiten ezaugarriak bereizi eta ezagutu. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea ihardueri egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.
MUNDUAN IHARDUN. Gorputz posturaren aldaketa aurreikusi. Mugimenduak sinkronizatu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...) ◆ Egintzen burutzera ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Hotsak bereizi. + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...). ◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarriz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Egitasmo batean parte hartu, helburua ezaguturik. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (iturak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. 	

USTIAPENA (egin moldea)

1. Kantua antzeztu :

Ximino bat bere lagunekin dantzan jostatu nahi du ; begira zazu : | Haurrak errondan ibiltzen dira eskuz-esku loturik.

Itzul. ⇒ Eskuak uzten dituzte eta lekuan berean itzultzen dira.

Orduan, haur bati galdegiten zaio « Zenbat jauzi egingen ditugu ? » Haurrak hautatzen du (bat edo bi ... edo bost...) eta horren arabera, denek batean jauzi egiten dute (jauzi bat, edo bi, edo...).

ERREPIKA. ⇒ Haurrak berriz ere errondan ibiltzen dira eskuz-esku loturik.

Jarri. ⇒ Eskuak uzten dituzte eta jartzen dira.

Orduan, haur bati erraiten zaio « Fruitu bat janen dugu. Zein ? » Haurrak hautatzen du (adibidez sagarra edo banana) eta haur guzietan alegia egiten dute fruitua jaten dutela.

ERREPIKA. ⇒ Haurrak xutitzen dira. Errondan ibiltzen dira eskuz-esku loturik.

Etzan. ⇒ Eskuak uzten dituzte eta etzaten dira. Momentu batez pausatzen dira begiak, hetsirik.

2. Ariketa zenbait :

- Hotsen bereizketa : animalien hotsen grabaketa entzun eta (ikus bukaeran aipatzen ditugun bi KDen erreferentziak), izendatu behar dira.
- Haur batek animalia pantomina edo hotsez imitazioa egin eta, besteek zein den asmatu behar dute.
- Har musika tresna irudi multzo bat eta kopuru berean, animalia irudiak. Haurrei proposatzen zaie hautatu animalia araberako multzotan banatzea. Halaber, animalia mota bakoitzari musika tresna bat identifikatzen diote. Erakasleak/animatzaileak musika tresna bat jotzean (musika grabaketa erabiliz edo mimatuz) doakion taldeak xutitu behar du eta dantza egin. Joko honentzat, balia daiteke *Potxo laguna* kantuari doakion karta jokoak (animalien irudiak) eta *Musikaren emaitza* kantuari doakion musika tresnen irudiak.

HIZKUNTZA HELBURUAK : hotsen bereizketa.

1. *Posesiboa :* Ximinoaren lagunak.
Joskera : Ximinoaren lagunak dantzan ari dira.
**edun aditz lag. :* Ximinoaren fruitua jaten dut, duzu...
2. *Joskera :* Ximinoa imitatu duzu edo ximinoarena egin duzu, dugu... dute.
**edun aditz lag. :* Ximinoa imitatu du, duzu, dut..., dute.
Ezezko formak : Ez dut ximinoa imitatu (ez dut ximinoarena egin).

© Idatz ezazu kantuaren erranaldi bat marrazkiaren zuriunean eta ondotik marrazkia margo ezazu.

Osatzeko entzun : → *J'écoute les sons de la Nature* KDa. Nashvert Production.
→ *Chants des 4 saisons*. Calendrier sonore de la nature. 09307 KDa. Sittelle.



